

Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Urmeneta: nire kontraera

AURTENGO Nafarroako sari bidegabeak sortu harrabotsen haritik, argi dago zer garai duten amets oraindik ere nafar gobernuan dirautenek: frankismoa. Asmo bat zerabilten gogoan: garai politiko hura Huarteren bidez goraiatu eta frankismoaren zauri eta min irekietan piko egitea, eta gibel-asmo bat ere bai: Urmenetaren bitartez dena goitik behera nahastu eta bazterrak ederki inarrotea.

Miguel Javier Urmenetari buruz batik bat nabarmendu da 1936ko gerrara eta “dibisio urdinera” boluntario joan izana, aipatu gabe bietan ere heriotza-mehatxua izan zela tartean, gerrara “boluntario” abiatu aitzinetik. Gero, goi-karrera militarra egin zuen, Iruñeko alkate izan zen, baita Nafarroako Diputazioko diputatu ere. Gaizki eginak aski eta sobra aipatu zaizkio azken asteotan; ez, ordea, adibidez, bere domina eta sari militarrei uko egin izana.

Urmeneta, halaber, bestelako lan batean nabarmendu zen, hots, euskara eta euskaldunak duintzearen aldeko lanean. Izan ere, besteak beste Urmenetaren ahaleginari esker, Euskararen Aldeko Saila (sic) sortu zen Diputazio barruan 1957an, atzeraka etengabean ari zen euskararen alde zerbait egiteko, garai hartako zirrikitu meharrak baliatuz. Bizirik

zirauten gerra aurreko nafar euskaltzaleak ere pozez bildu ziren ekimen berriaren inguruan, belaunaldi berri batekin batera, garai hartako indar politikoei (klandestinitatean zihardutenek) onarturik. Handik aurrera, besteak beste, euskal jaialdiak, bertsolari txapelketak, ikastolak, euskarazko aldizkaria eta euskal haurrentzako sariak antolatu zituzten. Urmenetak, izan ere, hauxe erran zien Saileko

arduradunei: “Haurrak euskarara erakarri behar ditugu; haurrekin batera gurasoak etorriko dira, eta haurrak euskararen inguruan mantentzen baditugu, gure hizkuntzak etorkizuna izanen du”. Ondoren, 60ko hamarkadan, beste belaunaldi gazte bat lotu zitzaion ekimenari, horien artean azken 35 urte honetako euskalgintzan eragile nabarmenetako batzuk izanikoak edo oraindik ere badirenak.

Bada, ekimen horren babesle nagusia, isilean, dela Diputazio barruko beste batzuen iritzien kontra, dela garaian garaiko gobernadorearen kontra, Urmeneta izan zen.

Hortxe dago, beraz, gure iragan hurbila, gurtiz ezezaguna; ez da historia ofizialean kontatzen, ezta historia ofizialaren kontrako kontraera ofizialean ere. ■

Urmenetari buruz batik bat nabarmendu da 1936ko gerrara eta “dibisio urdinera” boluntario joan izana, aipatu gabe bietan ere heriotza-mehatxua izan zela tartean, gerrara “boluntario” abiatu aitzinetik



XDZ



Joanes Etxebarria



KAZETARIA

Kutxa horiak

ASTEAN BEHIN Xiberoan, etxeetako atarrietan kutxa horiak bete-beterik ikusten dira goizean goizik, eta husturik berantago. Herri Elkargoaren kartoi, paper eta plastikoen bilketa zerbitzua da. Baina garestiegia omen da, eta 2015ean atez ateko bilketa bukatuko da.

Trukean, etxetik ateratzen diren hondakinak giltzapetua izanen den ontzi batera botako ditugu, pisatuak izanen dira, eta pisu batetik goiti zerga garestiago izanen da. Teorian, etxean bereizketa gutxi egiten duenak kario pagatu beharko du. Badakit sistema hori besteetan jadanik erabiltzen

dela, eta zerbaitengatik ezarriko dutela gurean ere.

Baina badira urteak kutxa horiak badi-tugula, eta hilabete andana jadanik berina ezin dela birziklagarrietan sartu. Kontainer beltzetan, arruntetan, berinak hausten entzuten dira geroztik. Kontainer berdeetan, berinazkoentzat eginak diren horietan, beti bada lekua soberan.

Denborak erranen du aldaketa ongi joanen denez. Gauza bakarra da segurua: hemen zikinak ez dira leihoetatik zintzilikatuko. ■

